

Irailaren 6an  
**URTEAN ZEHARREKO 23. IGANDEA**

**Agurra**

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Guztiok behar ditugu lagunak, haiez inguraturik maitasunean bizitzeko. Errespeturako eta batasunerako deia gure barnean sortzen da, ezin baita inor bakarrik bizi. Jainkoaren Hitzak argitzen gaitu gaur ere Eukaristian, eta besteekiko harremana berritzen eta sendotzen laguntzen digu. Zabal diezaiogun bihotza onartzen eta dei egiten digun Jainkoari

**Damu-otoitza**

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, zu zara gure bidea: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zu zara gure egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, zu zara gure bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

**Otoitza**

**Oi Jainko, Zuk salbatu gaituzu  
eta zeure seme-alabatzat onartu;  
begira onbera seme-alaba ordeko egin gaituzunoi,  
Kristogan sinesten dugunok egiazko askatasuna  
eta betiko bizia izan ditzagun.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### Hitzaren liturgiari oharpena

Kristauok beste gizon-emakume guztiekiko errespetuan eta maitasunean bizitzera deituak gaude, ez kanpotik datorren lege bezala, kristauaren bokazioa maitasuna delako baizik. Jainkoaren irudira sortuak gara, Semearengan seme-alaba gara... horra gure duintasuna.

### Lehenengo irakurgaia (Ez 33, 7-9)

Ezekiel profetaren liburutik

Jaunak honela esan zidan: «Zu, Israel, nire morroia zara, zuregan dut gorespena». Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik bere zerbitzurako deitu ninduen; Jakob Beregana bihurtzeko eta Israel biltzeko; izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak, eta Jainkoa izan zen nire indar. Eta hau esan dit: «Oso gutxi da zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak eraikitzeko eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko. Atzerrien argi egiten zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

### Erantzun-salmoa (Sal 94, 1-2. 6-7abc. 7d-9)

En-tzun-go al du-zu-e gaur Jau-na - ren min - tzo -

a: "Ez go-gor - tu zu-en bi-ho - tza".



Zatozte, pozez oihu degiogun **Jaunari**,  
txalo degiogun salbamen dugun Hark**aitzari**.  
Hurbil gakizkion aurrera esker-kant**uekin**,  
jai degiogun txalo ete eres**iekin**. R/.

Zatozte, ahozpez jaurets **dezagun**,  
egin gaituen Jaunari belaunika **gakizkion**.  
Bera baita gure Jainkoa, '  
gu, berriz, Haren larreko **herria**,  
Haren zainpeko **artalde**a. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren **mintzoa**:  
«Ez gogortu zuen bihotzak Meriban **bezala**,  
Masa-egunean basamortuan bezala. '  
Zuen gurasoek han zirikatu **ninduten**,  
Nik eginak ikusi arren, tentatu **ninduten**.» R/.

### **Bigarren irakurgaia** (*Erm* 13, 8-10)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Ez eduki zorrik inorekin, elkar maite izatekoa besterik. Maite duenak, bete du Legea. Izan ere, harako «ez ezkontzarik nahasi, ez inor hil, ez lapurtu, ez grinaz irrikatu», eta beste edozein agindu, hitz honetan biltzen da: «maita lagunurkoa zeure burua bezala».

Lagun urkoa maite duenak, ez dio gaitzik egiten. Maitatzea da, beraz, Lege osoa betetzea.

**Aleluia** (2 Ko 5, 19a. c)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen ari zen Kristo**re**ngan eta guri eman zigun adiskidetze**aren** hitza. R/.

**Ebanjelioa** (Mt 18, 15-20)**Homiliarako argibideak***Senideek elkar zuzentzea*

«Aska ditzagun lokarriak eta utzi nazazu» dio euskal musika talde baten (Kenzazpiren) kantu batek. «Utz nazazu bakean» asko entzuten dugun esaldia da; izan ere, ez zaigu gustatzen inork gure bizitzari buruz iritzirik ematea. Bakoitzak nahi duena egin nahi izaten du, gure egintzek elkartean, besteengan, eraginik ez baldute bezala. Baina egia zera da: gaitzak eta ongiak eragina dute guztiongan, gizakiok uharteak ez gara eta. Jainkoak besteen bizitzaren arduradun egin gaitu (*Ez 33,7-9*). Jainkoaren galderaren oihartzuna etengabe entzun behar genuke gure barnean: «Non da zure senidea?» (*Has 4,9*).

Egia da, askotan gaitz egiten dugula konturatu gabe, gaizki ari garela konziente izan gabe... Kristau jarrera ordea, maitasunean oinarri duena, elkar zuzentzea da. Kristau maitasuna ez da inori kalterik ez egitea bakarrik, baizik guztien ongia bilatzea. Norbait ondo ari ez

denean bere kristau konpromisoarekiko, apaltasunez, zuzendu egin behar da, esan egin behar zaio (*Mt 18,15-20*).

Familietan haustura bizi izan da kristau bizipenarekiko. Belaunaldietan aldaketa gertatu da. Adinekoak loturik daude oraindik kristau moralarekiko eta belaunaldi gazteagoek beste era batera ulertzen eta bizitzen dituzte gauzak. Bakeagatik, gai hauen inguruan isiltasuna bizi da etxe askotan... esan daiteke isiltasunean sufritzen dutela aiton-amona edo guraso askok.

Egungo gai larrienetako bat «hezkuntzarena da». Eskoletan ere, haur eta gazteak era osoan hezitzetik, gai akademikoetara murriztu dute sarritan hezkuntza. Familiak eta eskolak bere hezkuntza-ardura betetzen ez badute, noraezean bizi den jende asko aurki dezakegu gure gizartean.

Kristau maitasuna aintzakotzat harturik, bizitza publikoan parte hartu behar dugu kristauok eta maitasunaren zibilizazioa delakoa eraikitzen lagundu. Jainkoaren esperientzia duten pertsonak profeta eginkizuna dute, garaikideek bizi dituzten arriskuez jabetu eta salatu behar dituzte. Ebanjelioak sarri salatzen ditu gizakiok gure interesen arabera eraikitzen ditugun salbamen-faltsuak. Ebanjelio horrek berak egiten du presente gure munduan Jainkoaren egiazko salbamera.

Gure garaiko krisia ez da ekonomikoa bakarrik. Krisi morala da, balioen krisia da. Gure bizitzari zentzua ematen zieten hainbat balio desagartzen ari dira gizartetik. Kristauok ezin dugu beste aldera begiratu. Maitasunaren gizartea eratzeko gure gogoa eta itxaropena islatu behar ditugu eta partekatu gure garaiko gizon-emakume guztiekin.

## **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: jo dezagun Jaunarengana, gure otoitzak entzun ditzan eskatuz:

- Elizaren alde: Jaunak bakea eta batasuna eman diezazkion eta gaitz guztietatik babesturik Ebanjelioaren zerbitzari leial egin dezan. Egigun otoitz. R/.
- Munduko bakearen alde: gizaki guztien bihotzetan maitasuna eta elkarrenganako ulermena erne daitezen. Egigun otoitz. R/.
- Ezinean, gaixo edota goserik daudenen alde: Jaunaren laguntza eta gure arreta eta esku zabala falta ez dezaten. Egigun otoitz. R/.
- Gaur hemen bilduak gaudenon alde: fedean azkenerarte leial iraunez, egun batean zeruko mahaian ere elkar gaitezen. Egigun otoitz. R/.

Jesu Kristo gure Jauna, Zeuk hitz eman diguzu, zeruko Aitak entzuten duela Zure izenean biltzen direnen otoitza; emaguzu espiritu eta bihotz berria, elkar maitatuz Zure legea egiaz bete dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

**Hitzaren eta sakramentuaren mahaian  
janaritzen eta biziberritzen dituzu, Jauna, zeure fededunak;  
zure Semearen dohain handiak balia dakizkigula  
haren bizian beti parte izatea merezi dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**